

Café con leche, piña, huevo con jitomate, cebolla y cilantro

DAVID BESTUÉ, SUSANA SOLANO ETA JULIA SPÍNOLA

(komisarioa: Jorge Satorre)

16 Dec 2022 - 28 Feb 2023

CarrerasMugica

CarrerasMugicak atsegin handiz aurkezten du, abenduaren 16tik otsailaren 28ra, David Bestué, Susana Solano eta Julia Spínola artistek ondutako *Café con leche, piña, huevo con jitomate, cebolla y cilantro* [Kafesnea, anana, arrautza jitomate, tipula eta zilantroarekin] erakusketa, Jorge Satorrek komisariatuta.

Esperientziarik izan ezean, erakusketa hau antolatzeko gonbidapenari erantzuteko bide hauxe aurkitu dut: parte-hartzaileak hautatzea eta eszenaratzea beste norbaitek antolatu dituela pentsatu. Aurreikusita egongo litzateke neuk egindako artelan bat erakustea, azkenean sartu ez zena, eta arrazoia nik erabaki dezakedanez, ahaztu egin zitzaidala esango nuke. Obra hori ez da egiazkoa, baina jarduerak badu errealetik zerbait; badakit zertan oinarrituko nintzatekeen, eta, ziur aski, aste hauetan hura lantzen ariko nintzen, baina erakusketa honi eskaini behar diot denbora osoa, erakutsiko ez dudan lan horri buruzkoa ez dena, hori bai, ez haren ordezkoa ez emaitza ere.

Noizbait obra hori egitera iritsiko baldin banintz, jaten dugunari buruz amarekin telefonoz etengabe izaten ditudan hizketaldietan oinarrituko nintzateke: goxoa zegoen zerbait prestatu duela kontatzen dit amak edo kontatzen diot nik, edo gaizki irten zaigula edo astuna gertatu zaigula; astebururako prestatzea pentsatu duguna edo ea tankera oneko errezetaren bat aurkitu dugun. Jaten ditugun ahukateak Michoacaneakoak diren komentatzen dugu, ala Malagakoak, non mango oso onak landatzen dituzten, baina ez Mexikon dauzkagun Manilak adinakoak, eta Axarkia urik gabe geratzen ari dela, lehorreko nekazaritza laborantza tropikalekin ordezkatu zutelako.

Elkarrizketa horiek ez dira badaezpadakoak, azken batean, uste baitut benetan ari garela esaten amaren organoek eta nireek haiei ematea erabaki dugunarekin nola erreakzionatu duten, eta, jaten ari garena partekatzean, gure erraiak sinkronizatu egiten direla unean-unean. Iruditzen zait edozein erabakiren barruan dagoen distantzia-espeketroan (balizko artelan bat egitea oraingoan), albora jotzeko modu nabarmena dela hau, eta elkarrengana benetan hurbiltzeko modua, azala zeharka dezakeena, gure baitan ikusi eta kontrolatu ezin dugunera iristeko, aldi berean beste alderdi ugari oso urrun utzita.

Jorge Satorre

David Bestué (Bartzelona, 1980). Bartzelonan bizi da, eta bertan egiten du lan. Bartzelonako Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean ikasi zuen. Artista, idazlea eta komisarioa da. Artista moduan, hona hemen azken erakusketetako batzuk: Aflorar Altzuzako Jorge Oteiza Museoan (2022); Pastoral Lleidako La Paneran (2021); De perder un nombre Huescako Diputazioan (2020); Tramas Madrilgo CentroCentron (2019); eta ROSI AMOR Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofían (2017). Komisario lanean, azken erakusketak Bartzelonako Joan Miró Fundazioan aurkeztutako El sentit de l'escultura (2021) eta Hospitalet de Llobregateko La plaça (2019) izan dira. Idazle gisa, liburuak argitaratu ditu gai hauei buruz: Enric Miralles, Viaplana i Piñón, El Escorial eta Espainiako arkitektura eta ingeniaritzaren hurbileko historia.

Susana Solano (Bartzelona, 1946). Bartzelonan bizi da, eta bertan egiten du lan. Bartzelonako Arte Ederren Fakultatean ikasi zuen, eta eskolak ere eman zituen han. Nazioarteko lehiaketetan parte hartu du, hala nola Kassel VIII. eta IX.eko Documenta (1987 eta 1992), Sao Paoloko XIX. Bienala (1987), Münsterko Skulptur Projekte (1987), Veneziako Bienala (1988 eta 1993) eta Pittsburgheko Carnegie International (1988). Honako hauek izan dira haren azken erakusketetako batzuk: El mundo de las cosas CNIO Arte-n (2022), Fragmentos y enlaces Burgosko Santa Maria de Bujedo monasterioan (2022), Parisko Galerie Bernard Bouche (2020); Acta Valentziako IVAM Institut Valencià d'Art Modern-en (2019); Acta (dos) Valladolideko Patio Herreriano Museoa (2019). Haren lana hainbat museo eta bildumatan dago ikusgai, besteak beste, Amsterdameko Stedelijk Museum-en, Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofían, Osloko Museet for Samtidskunst. The National Museum of Contemporary Art-en, New Yorkeko MoMA Museum of Modern Art-en, Vienako Moderner Kunst Stiftung Ludwig Museum-en, Bartzelonako MACBA Museu d'Art Contemporani-n, Caceresko Helga de Alvear Fundazioan, Guggenheim Bilbao Museoan, Pittsburg-eko Carnegie Museum of Art-en.

Julia Spínola (Madril, 1979). Bartzelonan bizi da, eta bertan egiten du lan. Arte Ederretan lizentziatu zen Madrilgo Konplutentse Unibertsitatean, eta Lisboako Faculdade de Belas Artes unibertsitatean ere ikasi zuen. Gainera, hainbat beka eta sari eskuratu ditu, hala nola DAD residency (Berlin), Marcelino Botín 2013ko Arte Plastikoen Beka eta Radio Nacional de Españaren El Ojo Crítico de Artes Plasticas Saria 2013, Generaciones 2013 (Madril) eta Madrilgo Erkidegoaren 2017ko ARCO Saria. Haren azken erakusketetako batzuk honako hauek izan dira: Dialecto CA2M Madrilgo CA2M-n (2021), Vis Bartzelonako Fundació Miró-n (2020), Rojamente Bilboko Espacio ARTIATX Bilbao (2020); Footnote to a Footnote Erroman dagoen Espainiako Errege Akademian (2020). Haren lana ikusgai dago hainbat museo eta bildumatan: Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n (MNCARS), Fundación Marcelino Botín-en, Colección de Arte Comunidad de Madrid/CA2-n, Lleidako La Panera museoan eta Madrilgo Fundación Montemadrid/La Casa Encendida-n.

Jorge Satorre (Mexiko Hiria, 1979). Mexiko Hiritik Bilbora joan-etorrian bizi eta lan egiten du. Komunikazio Grafikoaren Diseinuan lizentziatu zen Mexiko Hiriko Unibertsitate Autonomo Metropolitano-Azc-en. Egonaldi artistikoetako programetan parte hartu izan du, esaterako, honako hauetan: Bartzelonako HANGAR, ARP Irish Museum of Modern Art, Le Pavillon, Parisko Palais de Tokyo, eta Londresko Gasworks. Hainbat museo eta galeriatan aurkeztu ditu lanak banakako artista moduan, eta hona hemen nabarmenenak: Frantziako Alsaziako CRAC, Los Angelesko REDCAT, Mexiko Hiriko Museo Tamayo, Bilboko CarrerasMugica, Mexiko Hiriko Labor galeria, Statements, Art Basel, Zeelanda Berriko Auckland-eko Artspace, Frantziako St-Nazaire-ko Le Grand Café, eta Londresko Form Content. Haren lanak ikusgai daude ondorengo museo eta bildumetan, besteak beste: Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía eta CA2M, Amsterdameko De Bruijn-Heijncollection, Mexikoko MUAC, Colección Jumex eta Museo Tamayo, Frantziako Frac des Pays de la Loire eta CNAP Centre national des arts plastiques. Komisario moduan, Erick Beltranekin lan egin du Modelling Standard erakusketan, Bartzelonako Joan Prats Galerian, eta, oraintsu, Alberto Peral artistaren Redonda redonda erakusketan, Bartzelonako Tecla Salan.



Rojamente #3, Julia Spínola, 2022 (xehetasuna).
6 serigrafiako taldea.

No lo sé nº1, Susana Solano, 1987.
Burdina eta beruna.
121 x 200 x 200 cm.

V, Julia Spínola, 2019.
Papera.
11 x 85 x 35 cm.





Meditaciones nº 10 (detail), Susana Solano, 1993. Burdina, aluminioa eta egurra. 43 x 588 x 393 cm.

Rojamente #3, Julia Spínola, 2022 (xehetasuna). 6 serigrafiako taldea.





X.15, David Bestué, 2022. Jasmina, kalendula, mimosa, zelulosa eta igeltsua. 97,5 x 30 x 20 cm.

X.16, David Bestué, 2022. Buganvilla, zelulosa eta igeltsua. 60 x 28 x 19 cm.



X.14, David Bestué, 2022. Mitxeleta, arrosa, zelulosa eta igeltsua.
2 elementu. 51 x 23 x 15 cm., 91 x 26 x 23 cm.



X.12, David Bestué, 2022. Glizina, arrosa, zelulosa, igeltsua eta poliester erretxina.
106 x 44 x 44 cm.





X.16, David Bestué, 2022.
Buganvilla, zelulosa eta igeltsua. 60 x 28 x 19 cm.

(ezkerretik eskuinera) David Bestué:

X.13, 2022. Mitxeleta, zelulosa eta igeltsua. 90 x 19 x 17 cm.

X.10, 2022. Glizina, zelulosa, igeltsua eta kartoia. 95 x 15 x 15 cm.

Manzana B, 2022. Sagarra, koko-koipea, glizemul eta igeltsua. 24 x 21 x 18 cm.

X.12, 2022. Glizina, arrosa, zelulosa, igeltsua eta poliester erretxina. 106 x 44 x 44 cm.



(ezkerretik eskuinera) David Bestué:
X.17, 2022. Glizina, jasmína, zelulosa eta igeltsua. 72 x 23 x 13 cm.
X.11, 2022. Glizina, zelulosa, igeltsua eta kartoia. 76 x 20 x 21 cm.





(ezkerretik eskuinera) David Bestué:
X.7, 2022. Glizina, zelulosa eta igeltsua. 48 x 14 x 12 cm.
Manzana A, 2022. Sagarra, koko-koipea, glizemul eta igeltsua. 26,5 x 22 x 19



Rojamente #3, Julia Spínola, 2022 (xehetasuna). 6 serigrafiako taldea.



Escenografía del sexe, Susana Solano, 1986. Burdina. 204 x 298 x 297 cm.





Beso, David Bestué, 2018. Metala. 13,5 x 3 x 2 cm.



Rojamente #3, Julia Spínola, 2022 (xehetasuna). 6 serigrafiako taldea.





(goian)
Rojamente #3, Julia Spínola, 2022. 6 serigrafiako taldea.


(ezkerran)
NO, Susana Solano, 1988. Burdina. 240 x 210 x 192 cm.



No lo sé nº1, Susana Solano, 1987. Burdina eta beruna. 121 x 200 x 200 cm.



No lo sé nº1 (xehetasuna), Susana Solano, 1987. Burdina eta beruna. 121 x 200 x 200 cm.



Rojamente #3, Julia Spínola, 2022 (xehetasuna). 6 serigrafiako taldea.



Meditaciones nº 10, Susana Solano, 1993. Burdina, aluminio eta egurra. 43 x 588 x 393 cm.



Meditaciones n° 10, Susana Solano, 1993. Burdina, aluminioa eta egurra. 43 x 588 x 393 cm.






V, Julia Spínola, 2019. Papera. 11 x 85 x 35 cm.



Piedra de Santiago de Chuco y gusano del Hospital de la Charité de París (Vallejo).
David Bestué, 2018.
Harria eta hautsa erretxinarekin. 7 x 8,5 x 7 cm.



Reflejo, Susana Solano, 2010-2011.
Burdina eta beruna.
84 x 100 x 50 cm.



Reflejo, Susana Solano, 2010-2011. Burdina eta beruna. 84 x 100 x 50 cm.





Flecha 1, Julia Spínola, 2022. Papera, sarea eta bridak. 215 x 160 x 140 cm.

Flecha 2, Julia Spínola, 2022. Papera, sarea, bridak eta plastiko burbuilak. 160 x 150 x 140 cm.



Flecha 1, Julia Spínola, 2022.
Papera, sarea eta bridak
215 x 160 x 140 cm.






(goian) David Bestué:
Filtro (hierba), 2022. Belarra, azukrea eta fokua
Filtro (remolacha), 2022. Erremolatxa, azukrea eta fokua
Filtro (buganvilla), 2022. Buganvilla, azukrea eta fokua

(eskuina)
Flecha 2, Julia Spínola, 2022.
Papera, sarea, bridak eta plastiko burbuilak. 160 x 150 x 140 cm.





Mediterrani, Susana Solano, 1983. Burdina. 12 x 100 x 140 cm.

Contemporani, Susana Solano, 1982. Margotutako brontzea. 39 x 55,5 x 46 cm.





Historia del metal en barra, David Bestué, 2015. Burdin sareak, barandak eta elkarri lotutako beste elementu metaliko batzuk. Neurri aldakorrak.



Historia del metal en barra, David Bestué, 2015 (xehetasuna). Burdin sareak, barandak eta elkarri lotutako beste elementu metaliko batzuk. Neurri aldakorrak.



Historia del metal en barra, David Bestué, 2015 (xehetasuna). Burdin sareak, barandak eta elkarri lotutako beste elementu metaliko batzuk. Neurri aldakorrak.



Historia del metal en barra, David Bestué, 2015 (xeheatasuna). Burdin sareak, barandak eta elkarri lotutako beste elementu metaliko batzuk. Neurri aldakorrak.



Forn a 300º, Susana Solano, 2022. Brontzeak (10) eta altzairu erdoilgaitza. 100 x 110 x 50 cm.



A stainless steel table with a flat top and four thin, vertical legs. On the table, several dark, textured objects are arranged, including what appears to be a small bowl, a cylindrical object, and a larger, more complex piece.

A wooden table with a long, thin top and two thick, vertical legs. On the right side of the table, a complex mechanical object is placed. A small yellow cup is on the floor near the left leg of the table.

A complex mechanical object, possibly a small engine or a piece of machinery, resting on the wooden table.

A small yellow cup on the floor near the wooden table.



Motor de sangre sobre banco de arena y vasos de hueso y marmol, David Bestu , 2017. Erretxina, odol-hautsa, harea, marmol-hautsa eta hezur-hautsa. 50 x 98 x 20 cm.



Motor de sangre sobre banco de arena y vasos de hueso y marmol, David Bestué, 2017. Erretxina, odol-hautsa, harea, marmol-hautsa eta hezur-hautsa. 50 x 98 x 20 cm.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725